



Hezkuntzarako COVID-19 koordinaziorako batzorde teknikoa

2021-2022 IKASTURTEKO 1. BILERA. 2021EKO IRAILAREN 23A, OSTEGUNA

PARTE-HARTZAILEAK:

Nafarroako Eskola Kontseiluko Hezkuntzarako COVID-19 koordinaziorako lan-batzordeak 1. bilera egin zuen 10:00etan, bideokonferentzia bidez. Han ziren ordezkari hauek: Hezkuntza Departamentuaren aldetik, Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendaria, Luis Calatayud Informazio Sistemen Zerbitzuko zuzendaria, Alberto Urrutia Ikuskapen Zerbitzuko zuzendaria; Osasun Departamentuaren aldetik, Arantxa Legarra Osasun Komunitarioa Sustatzeko Zerbitzuko, (Aurelio Barricarte Epidemiologiaren eta Osasun Prebentzioaren Zerbitzukoak ezin etorria adierazi du); Batzorde Iraunkorraren aldetik, LABeko Gorka Bueno, ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria, STEILASeko Arantxa Ruiz Vidorretarekin batera; FSIE-SEPNAko Pilar López Valderrama, ikastetxe itunduetako irakasleen ordezkaria; Herrikoako Noelia Echarri, ikastetxe publikoetako guraso-elkarteen ordezkaria; eta CONCAPAko Teresa Modol, ikastetxe itunduetako guraso-elkarteen ordezkaria. Jorge Lanchas, ikastetxeetako erakunde titularren izenean; eta Antonio Iriarte, idazkaria. María Lourdes García Roncal, Unibertsitateko Zerbitzuko. Iosu Mena, ADIko lehendakaria (Zuzendarien Elkarte). Pedro Rascón, Nafarroako Eskola Kontseiluko kidea. Batzordeburu, Manuel Martín Nafarroako Eskola Kontseiluko burua.

Gai-zerrenda:

1. 2020-2021 ikasturteko azken bileraren akta.
2. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak. Informazio mota berria
3. 2021-2022 ikasturterako lan plana.
4. Kontingentzia Plana eguneratzeko proposamenak.

1. 2020-2021 ikasturteko azken bileraren akta. Onetsi egin da.

2. Zertan diren une honetan ikastetxeetako kasu aktiboak. Informazio mota berria

Informazio Sistemen Zerbitzuko Luis Calatayudek datuak hobetu direla jakinarazi du, azken batzordeko datuen aldean. Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratzen ari dira COVID-19ak ikastetxeetan duen eraginaren datuak, eta egunero gaurkotzen dira. Horien baliokide dira, gutxi gorabehera, iaz egunero argitaratzen zen prentsa oharra eta batzordearen bilera bakoitzaren aurretik jakinarazten genuen txostena. Hemen ikus daiteke informazio hori: [Eragina eta egoera - koronabirusa | Nafarroako Gobernu Irekia](#), Ikastetxeak fitxan.

Gaur egun, ikastalde konfinatuen ehunekoa ikastalde kopuru osoarekiko % 0,54 da. HH+LHko ikasle konfinatuen ehunekoa ikasle kopuru osoarekiko % 0,81 da. Uneotan konfinaturik dauden ikasleak 495 dira. Zenbat ikastalde / ikasgela dauden berrogeialdian: 31. Ikastalde konfinatuen ehunekoa ikastalde kopuru osoarekiko: % 0,54. BTEen ehunekoa (HH eta LHko taldeak) ikasle kopuru osoarekiko: % 0,88. Haur Hezkuntzako zenbat ikastalde / ikasgela dauden berrogeialdian: 9. Lehen Hezkuntzako zenbat ikastalde / ikasgela dauden berrogeialdian: 22. DBHko eta Oinarrizko Lanbide Heziketako, Batxilergoko eta erdi eta goi mailako Lanbide Heziketako zenbat ikastalde / ikasgela dauden berrogeialdian: 0. Zenbat ikastetxetan dauzkaten ikastaldeak / ikasgelak



berrogeialdian: 19.

3. 2021-2022 ikasturterako lan plana: aurreko ikasturteko lan egitura onetsi da.
 - a. Ikasturteko azken bileraren akta
 - b. Zuzendaritzen eta batzordeko kideen informazio berriak
 - c. Jarduera presentziala garatzeko proposamenak. Proposamen pedagogiko eta metodologikoak.
 - d. Kontingentzia Plana eguneratzeko proposamenak.
4. Zuzendaritzen eta batzordeko kideen informazio berriak. Jarduera presentziala garatzeko proposamenak. Proposamen pedagogiko eta metodologikoak.

Eneko Ardaiz Azpiegituren Zerbitzuko zuzendariak jakinarazi du COVID-19aren aurkako materialen hornidurak aurreikusitako norabideari jarraitzen diola.

Alberto Urrutia Ikuskapen Zerbitzukoak azaldu du, ikasturte honetarako protokolo berriari dagokionez eta, bereziki, eskolaz kanpoko jarduerari dagokienez, pandemiaren aurretik eskolaldi jarraitua zuten ikastetxeak ongi antolatzen ari direla, aurreko esperientziari esker. Gainerako ikastetxeek zalantzak dituzte, uniformetasunez eta malgutasunez argitzen direnak lan horretan diharduen ikuskapen taldearen bidez, plana beti errespetatuta.

Gorka Buenok (LAB) adierazi du pandemiaren aurreko eskolaldia berreskuratzearen alde dagoela.

Iosu Menak galdetu du egingarria ote den dekretu bat prestatzea, ikastetxeei jakinaraziko diona zer ikasle dauden txertatuta eta zein ez. Ikastetxeetan egun aurkezten diren txertaketa-kartillaren antzekoa izanen litzateke. Eztabaida atzeratuko da Aurelio Barricarte hurrengo bileran egon arte.

Noelia Echarri Herrikoakoak eskatu du etorkizuneko eztabaidan kontuan har daitezela gai hauek:

- Pandemiaren aurretik ikastetxeetan zegoen jarduera berreskuratzea, batez ere eskolaldiari begira.
- Jolastokietan ikastaldeen malgutasun handiagoa izan dezaten lan egitea.
- Irizpide berari jarraitzea taldeen gorputz hezkuntza aire zabalean egiten dutenean. Izan ere, badakite batzuek maskara erabiltzen dutela eta beste batzuek ez.
- Bere ustez, irizpide ezberdinak aplikatzen dira eskoletan, kontuan hartuta ikasgela barruan dauden edo arratsaldeko eskolaz kanpoko jarduerak diren.
- Uste dute zenbait ikastetxe eskolaz kanpoko jarduerak muturreraino murriztu dituztela eta, horrela, familiak eta ikasleak hertsatzen direla. Alberto Urrutiak esan du, hori horrela bada, bere zerbitzuarekin harremanetan jar dadila, aipatutako arazoa ikastetxe horiekin konpontze aldera. Bere ustez, ikastetxeen jokaera hori ez da ikastetxeei igorri zaien planean aurreikusten zena.

Unibertsitateko Zerbitzuko María Lourdes García Roncalek jakinarazi du bere esparrutik, oraingoz, albiste guztiak onak direla. Edukiera % 50era handitzeak eta



segurtasun tartea 1,2 m-ra murrizteak espazioak hobeki aprobetxatzea ahalbidetzen dute. Horrela, nabarmen arintzen da unibertsitateko jarduera presentziala.

FSIE-SEPNAko **Pilar López Valderramak**, itunpeko ikastetxeetako irakasleen izenean diharduenak, esan du irakasleak harrিতuta eta haserre daudela ikastetxeek proposatzen dizkieten eskolaz kanpoko jarduerak ikusita.

STEILASeko **Arantxa Ruiz Vidorretak**, ikastetxe publikoetako irakasleen izenean diharduenak, adierazi du bat datorrela Pilar Lópezek emandako informazioarekin, hezkuntza publikoari dagokionez. Batzordeburuak argitu du aldarrikapena COVID-19 koordinaziorako lan-batzordetik kanpo dagoela eta hertsiki lotu behar dutela batzordea sortzeko arrazoi izan ziren parametroetara.

CONCAPAko **Teresa Modolek** bat egin du Herrikoak eskolaldiari buruz aipatu duenarekin. Halaber, esan du nekez egon daitezkeela batera ikastetxeek antolatzen dituzten jarduerak eta GEek ikastetxeetako espazioetan antolatzen dituztenak.

Jorge Lanchasek adierazi duenez, erlaxazio-giroa nabari da, baina osasun-arauei eutsita. Gehiago malgutu behar da zenbait ikaslerekin eta zenbait irakasgai (gorputz hezkuntza...) eta materialekin. Ikastetxeek oso ongi eutsi diete neurriei. Eskolaldiari dagokionez, ikastetxeek lehen zutena izateko eskatzen da.

Aho batez erabaki da Osasun Departamentuari eskatzea hemendik aurrera Haur eta Lehen Hezkuntzan ez konfinatzea talde egonkorreko ikasle guztiak, baizik eta bakarrik taldeko kasu positiboak, eta hain murriztaileak ez diren beste aukera batzuk ezartzea, bai pandemiaren egungo egoera, bai aurreko ikasturtean ikastalde egonkorren artean egiaztatu zen positiboaren tasa kontuan hartuta.

Hurrengo bilera urriaren 21ean egingen da, osteguna, 10:00etan.

Manuel Martín Iglesias

Kontseiluko burua